2019ko martxoan erregistratutako langabezia

2019ko martxoan zehar LANBIDEko bulegoetan 1.911 langabe gutxiago erregistratu dira. Horrek esan nahi du murrizketa balore erlatiboetan %1,6koa izan dela, eta 117.952 langabe daudela. Martxoan, krisi garaiko urteetan, langabezia hazi egiten zen; krisi aurreko epean, aldiz, langabezia murriztu egiten zen. Hil honetan langabezia ohi baino gehixeago murriztu da, hortaz, hilabetea positiboa dela esan dezakegu. Azken 15 urteetako bigarren datu onena izan da.

Langabetuen hilabeteko saldoaren bilakaera



	mar-05	mar-06	mar-07	mar-08	mar-09	mar-10	mar-11	mar-12	mar-13	mar-14	mar-15	mar-16	mar-17	mar-18	mar-19
Series1	-3456	-1513	-803	-731	5437	982	6095	2588	1335	2112	510	-619	-1066	-71	-1911

Urte arteko eboluzioari dagokionez, 9.212 pertsonetan murrizten da langabezia, aurreko hilabetean baino 1.840 gehiago. 2018an eta 2019 hasieran izandako urte arteko murrizketaren erritmoaren gutxitzea geratu da.

Erregistratutako langabetuen urte arteko saldoaren bilakaera



2019ko martxoan erregistratutako langabezia

• SEXUA

Azken hilabetean langabezia gizonezkoen artean gehiago murriztu da (%1,8) emakumezkoen artean baino (-%1,4). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonen artean %8,4 murriztu da, eta emakumeen artean, berriz, %6,4 soilik. Gaur egun langabeen %57,2 emakumeak dira. Krisia hasi zenean, aldiz, langabe kopurua berdintsua zen bi sexuetan, gizonezkoen artean langabezia orain baino handiagoa zen eta. Gizonezkoen artean krisiaren eragina handiago izan zen, baina talde hau errekuperazio ahalmen handiago erakusten ari da.

• ADINA

Azken hilabete honetan langabezia adin tarte guztietan murriztu da, 24 urte azpikoen tartean (%1,9 hazi da) eta 55 urtez gainekoen tartean izan ezik (%0,2 hazi da). Murrizketa handiena 25-34 urte artekoen tartean izan da (-%3,8). Urte arteko saldoan ere, 24 urte azpikoen artean bakarrik hazi da langabezia. Jaitsiera handiena 35 eta 44 urte arteko tartean izan da. Langabeen erdiak (%50,9) 44 urte baino gehiago ditu, %24,7ak ez ditu 35 urte baino gehiago eta beste %24,4a 35 eta 44 urteen artean kokatzen dira. Langabeak zenbat eta zaharragoak izan orduan eta zailtasun handiagoak dituzte laneratzeko. Ekonomia, egun, hobetzen ari bada ere, egiturazko langabezia handia utziko du krisiak langabe zaharrenen artean.

• JARDUERA EKONOMIKOA

Martxoan zehar, langabezia sektore ekonomiko guztietan murriztu da. Industria sektoreko eta zerbitzu sektoreko murrizketak nabarmentzen dira, 275 eta 1.505 langabetu gutxiago (%1,9ko murrizketa bi kasuetan). Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean 71 langabe gehiago zenbatzen dira. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz eraikuntza sektoreko murrizketa nabarmentzen da, %17,9ko jaitsiera, baita lehen sektorekoa (%8,8ko jaitsiera) ere.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia murrizketa handiena izan duena janari eta edarien zerbitzuak izan da 352 langabetu gutxiagorekin, eta ondoren enpleguarekin erlazionatutako jarduerak (-207). Igoera nabarmenak izan dituzten jarduera batzuk hauek izan dira: beste garraio materiala (+77) eta etxebizitzak langile enplegatzaile gisa (+75).

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 442 pertsonatan murriztu da eta epe laburrekoa 1.469 pertsonatan. Urte osoari begiratuz gero, ikusten da jaitsiera handiagoa izan dela epe luzeko langabeen artean (%11,4a, epe laburreko %2,5aren aldean). Ekonomiaren susperraldia, bada, aukerak eskaintzen ari da langabe kronifikatuenei.

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Martxoan langabezia hiru lurraldeetan murriztu da: Araban %1,2, Gipuzkoan %2,3 eta Bizkaian %1,4.

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio onena %8,3ko jaitsierarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio %6,3ko jaitsierarekin eta azkenik Araban %4,9 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Gasteizen azken hilean 150 pertsonatan jaitsi da langabezia, Bilbon 412 pertsonatan eta Donostian 266 pertsonatan. Langabezia nabarmen hazi diren eskualdeak Nerbioi Erdia (+27) eta Goiherri (+21) izan dira. Aldiz, eskualde hauetan langabezia jaitsi egin da: Durangaldea (-113) eta Ezker Eskualdea (-101).

2019ko martxoan erregistratutako langabezia

Martxoa honetan erregistratutako langabezia handiena duten udalerriak honako hauek izan dira; Oion (%21,46), Sestao (%18,87), Balmaseda (%16,69), Karrantza Harana (%16,40) eta Alonsotegi (%16,25).

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2019ko martxoan 36.614 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 475 langabe gutxiagok. Langabeen %31ak du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 21.302 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen %18,1 dira horiek. 15.312 langabek (%13), berriz, langabeziagatiko prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (%34,2), Araban eta Bizkaian %29,8koa eta %29,9koa da, hurrenez hurren.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabeziagatiko estaldura-tasa 0.1 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz, berriz, 2.5 hazi da.

• IKASKETA MAILA

Langabeen %61,8ak (72.933 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 846 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan %7,7 jaitsi da langabezia azken urtean.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen %8,9 dira. Talde horretan %0,5 jaitsi da langabezia azken hilean, eta azken urtean %4,7a.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 20.649 dira, hau da, langabeen %17,5. Talde hau martxoan zehar %2,6 murriztu da, eta azken urtean %5.

Azkenik, langabeen %11,8k (13.864 lagun), egin ditu unibertsitateko ikasketak. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean %3,2 murriztu da langabezia azken hilabetean eta %10 azken urtean, talde guztietan jaitsiera handiena hilabeteko eta urteko bilakaeran.

• JATORRIA

Langabeen %15,8 (18.636 lagun), atzerritarrak dira. Otsailarekin alderatuta, ikusten da langabezia murriztu egin dela atzerritarren artean %1,9, eta bertakoen artean %1,6.

Langabe atzerritarren %35a Afrika iparraldekoak dira, %21,1a Latinoamerikatik datoz, %19,9 Europako Esparru Ekonomikotik, %14,7a Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta %5,7, azkenik, Asiatik. Martxoan Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-%3,4).

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 33.956 langabe gehiago daude otsailean baino (%1,03ko igoera). Horrek esan nahi du guztira 3.255.084 langabe daudela erregistratuta; EAEn, berriz, %1,59 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetatik, Kantabriak izan du soilik bilakaera hobeagoa (%2,67ko murrizketa); Nafarroan %0,43 murriztu da, Errioxan %0,73 hazi da eta Gaztela eta Leonen, aldiz, %1,52 murriztu da. Erkidego handienen artean Katalunian %0,23 murriztu da eta Madrilen %0,13 murriztu da.

Urte arteko bilakaeran, langabezia gutxiago murriztu da Estatuan (-%4,89) EAEren aldean (-%7,24).

Lan-eskatzaile langabeak 2019ko martxoan

	mar-2019	ots-2019	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	**50.474**	**51.420**	**-946**	**-1,84**
EMAKUMEZKOAK	**67.478**	**68.443**	**-965**	**-1,41**
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	**8.292**	**8.221**	**71**	**0,86**
GIZONEZKOAK	**4.219**	**4.101**	**118**	**2,88**
EMAKUMEZKOAK	**4.073**	**4.120**	**12**	**-1,14**
25-44 URTE:				
GUZTIRA	**49.625**	**51.107**	**-1.482**	**-2,90**
GIZONEZKOAK	**20.445**	**21.207**	**-762**	**-3,59**
EMAKUMEZKOAK	**29.180**	**29.900**	**-720**	**-2,41**
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	**60.035**	**60.535**	**-500**	**-0,83**
GIZONEZKOAK	**25.810**	**26.112**	**-302**	**-1,16**
EMAKUMEZKOAK	**34.225**	**34.423**	**-198**	**-0,58**
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA				
INDUSTRIA	**2.668**	**2.715**	**-47**	**-1,73**
ERAIKUNTZA	**13.914**	**14.189**	**-275**	**-1,94**
ZERBITZUAK	**8.284**	**8.439**	**-155**	**-1,84**
AURREKO ENPLEGURIK GABE	**78.415**	**79.920**	**-1.505**	**-1,88**
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	**19.439**	**19.672**	**-233**	**-1,18**
BIZKAIA	**67.295**	**68.233**	**-938**	**-1,37**
GIPUZKOA	**31.218**	**31.958**	**-740**	**-2,32**
EAE	**117.952**	**119.863**	**-1.911**	**-1,59**

	Langa-betuak	Erregistratu-tako langabe-zia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	4.084	11,0%	-84	-2,02	-227	-5,27
Oarsoaldea	3.595	10,0%	-95	-2,57	-238	-6,21
Donostia-S.Seb.	7.670	8,7%	-266	-3,35	-714	-8,52
Donost.Mendebaldea	3.000	8,3%	-60	-1,96	-310	-9,37
Tolosaldea	2.029	8,8%	-14	-0,69	-173	-7,86
Urola Erdia	1.271	8,5%	-54	-4,08	-68	-5,08
Goiherri	1.644	7,9%	21	1,29	-21	-1,26
Deba Garaia	2.406	8,1%	-88	-3,53	-123	-4,86
Deba Behera	2.824	10,8%	-55	-1,91	-165	-5,52
Urola Garaia	1.085	9,1%	-13	-1,18	-44	-3,90
Urola Kosta	1.610	7,3%	-32	-1,95	-30	-1,83
GIPUZKOA	31.218	9,0%	-740	-2,32	-2.113	-6,34
Vitoria-Gasteiz	15.209	12,3%	-150	-0,98	-829	-5,17
Aialako Ibarra	2.313	12,3%	-17	-0,73	-61	-2,57
Arabar Errioxa	717	13,5%	-11	-1,51	-44	-5,78
Arabako lautada	616	8,4%	-10	-1,60	-100	-13,97
Gorbeia inguruak	282	6,1%	-6	-2,08	33	13,25
Arabako Ibarrak	368	7,6%	-34	-8,46	-8	-2,13
Arabako Mendialdea	86	5,8%	-7	-7,53	-18	-17,31
ARABA	19.439	11,9%	-233	-1,18	-992	-4,86
Gobela	4.869	9,4%	13	0,27	-432	-8,15
Txorierri	2.211	9,6%	-96	-4,16	-259	-10,49
Uribealdea	3.014	9,2%	-51	-1,66	-215	-6,66
Durangaldea	3.262	8,7%	-113	-3,35	-182	-5,28
Busturialdea	2.213	10,2%	-70	-3,07	-173	-7,25
Lea-Artibai	1.022	8,5%	-51	-4,75	43	4,39
Enkarterriak	2.171	13,9%	4	0,18	-169	-7,22
Arratia-Zornotza	1.449	8,4%	-50	-3,34	-98	-6,33
Arratia-Nerbioi	1.392	10,7%	27	1,98	-84	-5,69
Bilbo	22.983	13,8%	-412	-1,76	-2.373	-9,36
Ezkerraldea	17.862	14,3%	-101	-0,56	-1.792	-9,12
Ibaizabal	4.693	11,7%	-36	-0,76	-339	-6,74
BIZKAIA	67.295	12,0%	-938	-1,37	-6.107	-8,32
EAE	117.952	11,0%	-1.911	-1,59	-9.213	-7,25

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.